

Segurtasuna Interneten

Lagun diezaiegun neska-mutilei ahalik eta arrisku gutxienekin nabigatzen



ERRABILITAZIOAN DIREN ARABANO JOKALARIEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN ALAVEA DE JUGADORES/AI EN REHABILITACIÓN



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


ERREKREAZIOA DIMITZE
GINTZEN SAIA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y DEPORTES VASCOAS

Zer da Internet?



Informatikan, sare bat elkarren artean konektatutako ordenagailu multzo bat da. Munduan dauden sare guztiak konektatzen baditugu, Internet izango genuke.

Beraz, **INTERNET SAREAK BILTZEN DITUEN SAREA DA**. Konektatuta dauden ordenagailu guztiek, informazioa, artxiboak, mezuak, argazkiak... eta beste hainbat gauza parteka ditzakete.



Zertarako balio du Internetek?

Mezuak bidali eta jasotzeko: Beste pertsona batzuekin harremanetan egoteko.

Edozein motako informazioa bilatzeko: Gai interesgarriak, eskola-lanen edukiak, bidaien eta irteeren prestakuntza, gure ingurua gehiago ezagutu.

Beste pertsona batzuekin “**mintzatzeko**” (txateatu).

Etiketrik kudeaketak egiteko: bankua, osasun kontuak (medikuntza orokorra, pediastra).

Jolasteko: Zorizko eta diru jokoak, rol-jokoak, bideo-jokoak sarean...



Zenbait hitz



SARBIDEA. - Norbait web orrialde batean sartzea.

ANTIBIRUSA. - Disko gogorra eta disketeak kutsatu ahal izan dituen birus informatikoak bilatu eta eskumena badu, baztertzen dituen programa.

BILATZAILA. - Erabiltzaile bati, baldintza zehatzak (bilaketa irizpideak) dituen web orrialdeak aurkitzea ahalbideratzen dion zerbitzua.

TXAT. - Denbora errealean, ordenagailu ezberdinetan dauden erabiltzaileen artean, elkarrizketa egitea ahalbideratzen duen funtzioa. Teklatuaren bidez komunikatzen dira.

PASAHITZA. - erabiltzaile bat identifikatzeko erabiltzen den hizki eta zenbaki multzoa.

SPAM. - Eskatzen ez den posta, orokorrean komertziala izaten da.

CIBERBULLYING. - Internet bidezko jazarpena.

BLOG EDOO BITAKORA. - Erabiltzaileak artikulua edo albisteak argitaratzeko, Internetek duen idazketa pertsonal esparrua besterik ez da. Sarean egunerokoa bezala erabiltzeko pentsatua dago, pertsona batek tarteka gustukoa duen edo interesatzen zaion hartaz informatzeko, partekatzeko edo eztabaidatzeko erabil dezake.

Google™

YAHOO!



altavista™

Bilatzailerik garrantzitsuen izenak.

FORO.- Edozein gaien inguruan iritziak, esperientziak edo zalantzak partekatzeko jendeak erabili ohi duen Internet txokoa. Foro batek, beste edozeinek bere iritzia adierazi eta erantzun ahal izango duen gai bat zabaltzea edo beste edozeinek planteatu duen gai bati erantzuna ematea ahalbideratzen du.

PHISHING.- Hainbat zuzenketa egiteko erabiltzaileei euren gako edo kontu zenbakiak eskatzeko gezurrezko banku erakundeek bidalitako mezuak. Posta faltsuak dira.

Interneten onurak



Berehala, ezagutza anitz eta ugarietarako sarbidea izatea: heziketa-baliabideak, informazio eguneratua, argazkiak, dokumentuak, gai ezberdinei buruzko informazioa...

Zure zaletasun, abeslari, gustuko talde, eta abarri buruz hainbat informazio eskuratzea.

Internetek duen interakzio dimentsioak, planetako edozein txokotan dagoen solaskide batekin ideiak fukatzea ahalbideratzen die eta iritziak emateko edo adierazpenak egiteko plataforma bat izateko aukera luzatzen die; esperientzia horiek atseginak eta aberatsak izan daitezke.

Etxerako lanak egiteko laguntza eskuratzea, dela on line bidezko entziklopedia edo beste erreferentzia lan batzuen bidez, dela adituekin harremanetan jarritz.



Interneten arriskuak



IRUSI. - Eduki (testu nahiz irudiak), zantarrak, arrazistak, diskriminatzaileak ,sexualak, bortitzak...

EZAGUTU. - Sarean, haurrak edo gazteak direla sinestaraziz gazteen konfiantza irabazten duten pederastak daude eta eztabaida kaltegarriak, eduki sexualeri buruzkoa, izan ditzakete eta hitzordua ere jar dezakete.

EGIN. - Mezu, foro edo txat bidez neska-mutilak hainbat ekintza egitera bultzatu ahal dien mundu batean sar daitezke, zenbaitetan delituzko ekintzak izanik.

EROSI. - Neska-mutilek, adineko baten bankuko datura edo kreditu txartelera sarbidea izanik, denetik erosi ahal izango duten mundu batera sar daitezke, edozein delarik bere salneurria eta zorizko jokoetan jokatzera ere hel daitezke.

JAITSI. - Gure ordenagailura jokoak, musika, fitxategiak, e.a jaisteko programa asko daude. Horiek zenbaitetan birusez hutsatuta egon daitezke eta batzutan gure datu konfidentzietara hel daitezkeen hacker-ei atreak ireki diezaiekete.

Interneten gure seme-alaben segurtasuna mantentzeko oinarrizko arauak

✘ Internet sarbidea duen ordenagailua etxeko ohiko leku batean kokatu, guztiek erabili dezaten

Ordenagailua guztien eskura dagoen leku batean egon behar da eta ahal den neurrian, pantaila gurasoen bistan egon behar da. Horrela, internet erabili den denbora eta neska-mutilek erabilitako edukiak kontrolatu ahal izango dira. Halaber, bere jarrera ikusi ahal izango da eta arazorik balego (pertsonez egunekin arazoak, jazarpen egoerak, orrialde desegokitarako sarbidea) berehala jarduteko aukera izango da.

✘ Neska-mutilekin konexio denbora eta bisita ditzaketen lekuak zeini zango diren hitzartu

Nahiz eta autore batzuk konexio iraupen zehatza ezarri, haurraren adina, internet une horretan zentzuzko erabiltzen ari den, ... baloratu behar da. Etxerako lan baten laguntza modura erabiltzen ari bada, informazioaren bilaketaren beharraren baitan egongo da iraupena. Gustuko duen musika talde edo baharlariari buruzko informazioa edo kirolarekin zerikusia duten gaietarako buruzko informazioa bilatzen ari bada ere hitzartu daiteke iraupena, musika entzuteko edo kirol aldizhari bati irakurtzeko uzten zaion denboraren arabera, adibidez. Berehalako mezuei edo Messenger-ari dagokionez, neska-mutilei

tarifa merkean telefonoz hitz egiteko utziko litzaiekeen denbora hartu daiteke kontuan.

✘ Neska-mutilei internet bidez “ezagutu” duten pertsona batekin hitzordtu bat sekula ez dela jarri behar ulertarazten laguntzea (ez bakarrik, ez gurasoen ezaguerarik gabe)

Neska-mutilei sare bidez ezezagunekin hitz egitean, berak dioen hura ez izatea suerta daitekeela erakutsi behar zaie. Ez da norberari buruzko informaziorik eman behar: non bizi den, bere telefono zenbakia eta beste zenbait datu pertsonal. Eta era seguruan nabigatzeko funtsezko arau bat ikasi behar dute: **SEKULA EZ GERATU INTERNETEHKO PERTSONA EZEZAGUN BATEKIN ADINEHO PERTSONA EDO LAGUNIK AURREAN EZ BADAGO.**

✘ Ez eman edo erakutsi norbere gakoak inori (ez eta lagunik onenei ere)

Egiten bada, ordenagailuaren edukira edozein pertsona sartzea ahalbidera daiteke: datu, fitxategi pribatu, eduki pertsonal... Hauek, beste pertsona batzuek era desegokian erabil ditzakete edo eduki guztiz pribatuak atera ditzakete. Homenigarria litzateke, orobat, beste ordenagailu batzuetan gakoak ez uztea (adibidez cyber-guneetan). Faltsutze kasuak gerta daitezke.



✘ Ez sekula bidali argazkirik pertsona ezezagun edo ezagunei zertarako erabili behar den zehazten ez bada, eta edozein kasutan gurasoen jakinaren gainean egon behar du bai edukiak eta bai jasotzaileak

Pertsona ezezagunei argazkiak bidaltzen zaizkienean ez da jakiten zein izango den argazkiaren erabilera. Zenbaitetan neska-mutlei oso egokiak ez diren egoeretan argazkiak egitea eskatzen zaie, ondoren pertsona askok ireki dezaketen fitxategietan azal daitezke. Pertsona ezaguna bada, komenigarria litzateke zein erabilera egingo litzatekeen jakitea bidali aurretik.

✘ Ez sartu ezezagun batek bidalitako material batean eta ez aktibatu duda-mudazko eran iritsi den artxiborik

Zenbaitetan, jaso daitezkeen artxiboak, kutsatutako ekipamendua haultzeko helburuz birusak, troyanoak, harrak... dituzten programak dira. Bestalde, ordenagailu batean birus bidez, troyano bidez edo orokorrean gertatzen den bezala, doako programa batean ezkutaturik instalatzen diren (freeware edo adware) programa espioia daude. Helburua, gu ohartu gabe gure nabigazio ohiturei buruz informazio baliagarria ateratzea da. Espioi programek atera ohi duten informazioa estatistika edo komertzial erabilera dute, publizitate enpresei baliagarri zaizkielarik. Baina programa hauek, batzutan gorderik dugun informazio pertsonalerako (izena, posta elektronikoa helbidea...) sarbidea izan dezakete eta zenbait dute, eta baita gure erabiltzaile kontu edo pasahitz edo gakoak bezalako bere biziko garrantzia duten datuetara...

✘ Besteak errespetatzen irakastea baita sare bidez ere

Ez da utzi behar, internetek luzatzen duen anonimatu aukera probestuz neska-mutilek egin behar ez liratekeen gauzak esan edo egitea. Bizitza errealean johaera ona izaten erakusten zaien bezala, “bizitza birtualean” ere gauza bera egin behar da. Eta garbi izan behar dute, beraiek direla esaten duten eta egiten duten guztiaren erantzule

✘ Ez egin “on line” erosketarik aurretik gurasoekin hitz egin gabe

Kontuan izan behar da iruzurrean espezialistak diren iruzurgileak daudela eta gazteengana jotzen dutela, desiragarri zaien zerbaiz eskainiz, adineko pertsonekin baino kontu gutxiagoa edukiz bankuko datuak eskuratzeko engainua egin dezaketelako. Komenigarria litzateke erosketarik egingo balitz, garbi izatea zer eta non erosi behar den eta erosketa egiten den unean aurrean egotea.



Internet sarbidea kontrolatzea

Garrantzitsua da adieraztea, kontrolatzeko balio duten iragazki bidezko programa ezberdinak erabiltzen badira ere, oso garrantzitsua dela Interneten segurtasuna izatearen garrantziaz neska-mutilak heztea eta baita orrialde eta eduki ezberdinen aurrean arduradun izaten erakustez ere.

Metodo ezberdinak daude gurasoentzako, neska-mutilak Interneteko zenbait orrialde eta edukietara sartzearen kontrola ahalbideratuko dutenak. Garrantzitsua litzateke sistema aukeratzeko garaian haur bakoitza kontuan hartzea.

IRAGAZKIA. - Interneteko zenbait sarbide kontrolatzea ahalbideratzen duen programa (software) da. Programak hautatu diren hitz eta kategoriak dituzten web-etarako sarbideak etengo lituzke. Deskarga kopurvak mugatzea edo erabiltzaileen nabigatze iraupena mugatzea lirateke programak dituen beste funtzio batzuk. Iragazkiaren konfiguratzeko profilak ezartzea ere ahalbideratzen du, erabiltzaile bakoitzaren adina kontuan izanik. Hala ere, kontuan izan behar da, iragazkia neska-mutilak ikuskatzeko tresna dela, baina sekula ezingo duela gurasoek egiten duten lana ordezkatu.

Canguronet (www.telefonicaonline.com)

Optenet (www.optenet.es)

Panda internet Security (www.pandasoftware.com)



Messenger (1)

Berehalako mezularitza programa bat da. Berehalako mezularitzak, Internet edo beste sare batzuetara konektatuta dauden beste erabiltzaile batzuekin berehalako mezua bidali eta jasotzeko eta hitz egiteko noiz dauden eskuragarri jakiteko balio duen TCP/IP protokoloak erabiltzen dituzten programa multzoa dira. Gazteek Messenger- ari ikusten dizkieten abantailak:

Homunikazioa jarraia, luzea eta ekonomikoa ahalbideratzen die.

Norekin hitz egin aukeratzea ahalbideratzen die, “agertzea” komeni zaien arte ezkutuan mantentzea edota harreman sarea areagotzea.

“Pasiboki eskuragarri” egoten ahalbideratzen die.

Gazteei “beste ni” bat sortzea ahalbideratzen die, errealak bailiran jardun dezaketenak eta “era birtualean harremanak izan eta hunkitzeo” helburua dute. Gazteek, Messenger -a horretarako erabiltzen duten ingurunea, senitarteko ingurunea da, bertan seguru aurkitzen dira eta askatu egiten dira.





Messenger (2)

Garrantzitsua da Messenger erabilera heztea.

Ordutegiak hitzartu daitezke, ikasketa eta aisialdi denbora bereiziz.

Seme-alabak konfiantzazkoak ez diren pertsonak gehitzearen arriskuaz ohartaraztea.

Messenger-eko lagunen izen eta identitateetan interesa ipini (bizitza errealean egiten den bezala).

Gogorarazi Messenger-ean dauden konfiantzako ezagunei datu pertsonal eta familiarrak ematea ez dela zuhurra, izan ere, datu horiek hirugarren batek asmo txarrez erabil ditzake.

Dituzten arriskuei buruz eta haien aurrean babesteko dituzten tresnei buruz seme-alabekin elkarrizketa zehatz eta zabalak izatea. Honakoa da lehen segurtasun araua: Sekula ez bidali informazio konfidentziala Messenger bidez: Idazten eta ikusten den oro, beste pertsona batek ikus dezake.

Pasahitz edo gakoa maiztasunez aldatzen erakustea beste segurtasun neurri bat da (edonork har dezake zeure identitatea).

Messenger- ean duten pertsona batekin hitz egin aurretik, egiaz bere PC —an dagoela edo erantzun egin dezakeela egiaztatu behar dela aipatu, sarritan, ordenagailua piztuta dago baina pertsona hori ez dago eta bidaltzen diren datuak, gertu dagoen edonork irakur ditzake.

Gauza bat inuzentea izatea da eta beste bat ezjakina izatea.

Gurasoek seme-alaben mundua ezagutu behar dute.

Internetaren erabilerarekin zerikusia duten arriskuak

ARRISKU ZANTZU POSIBLEAK

- Txat geletan pasatzen den denbora.
- Ordenagailura jaitzitako ezezagunen argazkiak.
- Ezezagunen telefono dei, eskutitz edo opariak.
- Beste pertsona batzuen Internet kontua erabiltzea.
- Jarrera aldaketa, haurrak Sarean egiten duen jarduera ezkutatzeko nahia.
- Beste pertsona bat gerturatzean ordenagailua itzaltzea.

Internet menpekotasunala

- Sarearengan jarritako kezka.
- Epealdi gero eta luzeagoan Internet erabiltzeko beharra.
- Internet erabilera kontrolatzeko, murrizteko edo eteteko alferrikako ahaleginak.
- Erabilera murrizten saiatzeagatik lasaitasun eza, umore txarra, depresioa edo sumindura.
- Honexio denbora muga ez errespetatzea
- Harreman garrantzitsuren bat, lana edo ikasketak galdu edo uztea.
- Sarearen zaletasuna ezkutatzeko asmoz inguruko pertsonaren bati gezurra esatea.
- Internet arazoetatik ihes egiteko edo gogo-aldarte ezhorrak biguntzeko erabiltzea.



Azken finean



Gure seme-alabei era seguruan nabigatzen laguntzeko erarik onena honakoa da:

- Interneten nabigatzearen arazo eta abantailak ezagutu ditzatela.
- Era arduratsuan nabiga dezaten hezi.
- Estrategiak eman babes daitezten.

Horretarako:

bat Internetekin trebatu.

bi Interneten erabilerari buruz mintzatu.

hiru Elkarrekin nabigatu.

lau Kontrol-tresnei buruzko informazioa izan.

bost Ikasten duten zentroan segurtasun neurririk jarraitzen ote den jakin.

sei Etxean segurtasun neurriak jarri.

zazpi Ordenagailua guztiok ikusteko moduan jarri.

zortzi Adingabeei segurtasunez nabigatzen erakutsi.

bederatzi Web seguruak aurkitu.

hamar Zilegizko arazo baten aurrean, bizkor erantzun.

Baliabideak

Zorizko joko, bideo-joko, internet eta bere erabilera eta horiek gehiegi erabiltzeak ekar ditzakeen arriskuei buruz Irakasle eta Hezitzaileak, Orientatzaileak, Gurasoak, Familia orokorrean eta gazteak eurak informatzea, kontzientzia hartzea eta prestatzea.

Gehiegi erabiltzearen balizko egoeren aurrean eta jokoaren erabilerari eta teknologiari buruz sor daitezkeen zalantzen aurrean bai eskola, familia eta gizarte esparruari eta bai gazteen kolektiboari Aholkularitza eskaintzea.

www.onlinezurekin.org

OnlineZurekin
Ludopatia eta teknologia berri biko arloko aholkularitza
Asesoramiento en Ludopatía y Nuevas Tecnologías

